RRAGAKO GAISOTEGIA
(ERRESIDENTZIA)

kc 698. Zeruko Argian agertu a, Seguritate Sozialeko Buru zen de León jaunak esana: Zumarra-n zela eta urte hau bukatzerako, artuko zitzaizkiola...
ldiz, Isturiz jauna dago Sánchez en tokian eta egoeran berri jaki-Goiherriko Guraso Elkarteen Or-a bat Madrilera joan zen urriaren

, lehengoarekin mintzatu nahi a gero oraingoarekin, baina atze-t zela bide, lehengoarekin ez zu-egiterik izan. Isturiz jaunak ez, lehenengo Donostiako Geria-estatu behar dute eta horretara-miloi pta. behar da. Gainera, be-betez ari dadin, beste 600 miloi na Geriatriko-k baduke beste Bere barne Araudiak dioenez ez horretarako egina, zaharren bizi-o baizik... Lege arloa "konpon-o, 400en bat miloiz eskuratu na-u Seguritate Sozialak Fundación dik eta gainera, azken erakunde ohedun Maternidadea eginarazi i horiez. Eta hor dago, nonbait,

hautik at beste zerbait egiteko dirurik ez omen dago orain, beraz gakoak pasa-misi du aurtengoz.
ura zen arazo eta Barrendiolako n esku zegoen Zumarragan egi-n, Barrendiola prestatzen ari dire-drilek dirua noiz eman nahi duen a (beti bezala). Dena dela, Isturiz san zuenez, datorren urtean has-dibilitateak" badaudeke... eta az-ndoren hilabeteko epe batetan bat agindu zien ordezkariei.
i dagokionez, bere Anbulatorioa, etakoa omen da eta Espezialita-koa egin behar omen da. Lurrak ditu aspaldian Udaletxeak. Hau iletik jaurti txanponen zai dago-hau, ez da asko haizatu erdal etan...●

MURUMENDI

✵

ARRASATE

L.I.M.S:A.N 3 LANGILE
ORAINDIK KANPOAN

... astean esan genuenez lantegi ... lehendabizi hiru lagun, gero eta azkenik hogei gehiago bota zi-Azkeneko orduko berriek diote-enpresak lehen hiruekiko despi-or eusten dio; beste biak berriro ... erabaki du Magistraturak eta gelditzen diren hogeiei lanerako bat egin dezatela agindu die. Di- MAGEFESAko zuzendaritzak ... erazten die LIMSAkoei●

BEASAINGO "Irurena" lantokiko langile guztiak kaleratuak izan dira.

20 langile inguruko lantegi honen historia, langile borrokan beste zapalkuntza bat gehiago bezala har dezakegu. Ia 3 urte batere gorakadarik gabe egon dira. Horrela, joan zen otsailean, 1.000 peztako eskabidea egin zuten.

Nagusigoak, oporraldien aurretik a atzeratutako eta guzti ordainduko ziela agindu zien; baina, epea amaitzen, ez zen inongo hobekuntzarik agertu. Horrela, Batzarreak, 9 egunetako geldialdi bat erabakitzen zuen. Eta enpresak irtenbide bezala, kooperatiba era bat eskaini zien. Aitzakia dirurik eza izan zen, baina guztiek dakite, lantoki honetarako diruz, Idiazabalgo herrian LANTOKI izeneko lantegi bat eraikia dutela.

Azaroaren 8an, langileek oraingoan, guztientzat 8000 peztako igoera eskatzen dute, IRTP ere enpresaren kontura utziaz. Baina eskabide hauk oihartzunik ez zutela izan ikusirik, berriz ere grebara jotzea erabakitzen dute.

Eta azaroaren 22an, enpresak, "bajan" daudenak ere tartean direla, langile guztien despidoa izenpetzen du, " vertical"ren ahulezia behin eta berriz azalduz. Eusko langileentzat beste borrokabide bat. Goiherriko langileon klase kontzientzia, oraingoan ere, geroz eta gehiago indartzen ari dela ikusi da●

Jexux Aizpurua

Zeruko Argia 5.12.76

# D. Jose M.ª Arizmendiarreta kooperatibagintzaren aita hil da



**Zeruko Argiaren 706garren alea kooperatibagintzari eskaini genionean D. Jose Mariari elkarrizketa bat egin nahi izan genion. Baina gaixorik zen ordurako eta ez gintzaizkion hurbildu.**

Halere "Historia Ttikia" deitu lanean hala zer zion batek:

"Gerra zibilak arrasto iraunkorra utzi zuen Euskalerrian. Euskaldunok galtzaileen aldetik ginen eta ondoren txar guziak jasan behar izan genitueh. Ekonomi kontuan eta politika kontuan eta politika kontuan herria desegina gelditu zen. Gizonez ere jota gelditu zen: batzuak hilak, besteak herbestean eta, nola nahi ere, hobenak falta. Eta gero gerra ondoko egurra gainetik.

Egoera hortan eta herri batean -Arrasaten- Apaiz bat agertu zen. Arrasatek 8.000 bizilagun besterik ez zuen orduan. Industriherri bat zen eta inguru hartako industriarik indartsuena zeukana. Han agertu zen apaiz hura ere galtzaileen aldetik ibilia zen. Gizon hura Elizaren irakaskintza sozialez barrubarruraino ikuitua zetorren. Gerraren ondoren txarrak erreinoitzeko asmoa zekarren eta gerraren ondorioz jota zegoen herri hau sozial, kultur eta giza mailan berritzen hasten da.

Beraren lehen ekintza, eskola profesional bat egitea izan zen. Aprendizen eskola bat besterik ez zen haseran. Hango lantegirik haundienaren babesean hasi zuen.

Lehen kooperatiba sortzeko erabakia hartzerako, 15 urte eta gehiago joan ziren. Beraz lehen kooperatiba-lana, formazio-lana izan zen, batez ere gidariena. Hauek, aldi hortan "Ingeniería Técnica" deritzaionaren erdi-tituloak atera zituzten.

Urte hauetan gazte kezkatienak eta apraposenak, konpromiso sozial batek eraginda, lana eta Perito karrera aldi berean eginez, industri kontuan eskarmentu bat hartzen ari dira eta prestamen tekniko bat lortzen, eta beren langile munduari hobeki egokituriko lantegi modu baten asmoa helduz doa beren burutan".

D. Jose Mariak erein zuen hazi hark fruitu haundiak eta asko eman ditu. Norbait haundia bizi zela herrian Arrasatek ondo bazekien. Eta ez bazekien ere jakin du norbait haundia hil dela herrian. Munduak ziren D. Jose Mariaren hiletetan.

Kooperatibagintza aitarik gabe bizitzeko moduan hazita dago. Baina, halere, aitaren galtzeaz negar egiten du. Jendeari elkar-lanera hotsegin dion D. Jose Mariak erein ditzala betikotasun guztian elkartasuna eta maitasuna euskaldunon artean●